


Aitor Agirrezabal

♦ ARGIAKO BLOGARIA

Erabakitzen duen herria herriagoa da

HILABETE ERDIA, 15 egun besterik ez, eta Eskoziak berebiziko erabakia hartzeko eguna izango du. Ez daukat ideiarik egun horretan eman daitekeen emaitzaren inguruan. Eta esango nuke inork ez duela batere argi. Kontrakoa dioenak...

Mila aldiz erantzun diot galdera berari: “Zer gertatuko da?”. “Ez dakit”. Erantzun argia. Inkestak bi norabide desberdinetan mugitzen dira, bi bide ezberdinetik datozen moduan. Alde batetik, hedabide unionista guztiek alde zabala ematen diote ezezko bozari, nahiz eta baiezkkoa gerturatu eta gerturatu dabilen. Bestetik, Radical Independence Campaignek burututako Mass Canvass edo atez ateko galdeketa, alde nabarmena da independentziaren alde. Azkenik, Panelbasek egindakoak ezezkoaren alde agertzen dira oraindik ere, baina oso alde txikiarekin. Hauek izan litezke azken emaitzara gehien gerturatzaren direnak, eta alde batera edo bestera izan, alde txikia izango dela egingen nuke apustu.

Baiezkoaren aldeko gorakadak bi pizgarri izan ditu azken aldian. Lehen, iragan abuztuaren 5ean Alex Salmond premier eskoziarrak eta kanpaina unionistako burua den Alistair Darlingek burututako telebista debata (hilak 25ean, bigarren bat izan da, BBCko kameran aurrean). Azken, abuztuaren bertan piztu den debata, Osasun Zerbitzu Nazionalaren (NHS) inguruko eztabaida eta ezezkoaren garaipenak osasun zerbitzu publikoen galera ekar dezakeela.

Ezetz gailendu liteke? Noski. Hori diote inkesta gehienek. Eta baiezkkoa? Noski. Aurrerapauso handiak eman dituzte eta inkestetan agertzen ez den jende asko joanen da irailaren 18an bere boza ematera.

Hala ere, ideia garbi bat atera daiteke. Ateratzen dena aterata, independentziak bere bidea jarraituko du. Boz batekin edo bestearekin independentziaren bidea ez da irailean amaituko. Galdeketa jende berri asko erakarri du politikara eta bere herria eraikitze lanetara, eta masa horrek, 2014an ez baldin bada, 2016an eraikiko du independentzia. Argi daukadan gauza bakarra da hau. Eskoziak hartu duen bideak ez daukala atzera bueltarik eta lehenago edo beranduago estatu independente bat izango dela.

Ezetz gailendu liteke? Noski. Hori diote inkesta gehienek. Eta baiezkkoa? Noski. Aurrerapauso handiak eman dituzte eta inkestetan agertzen ez den jende asko joanen da irailaren 18an bere boza ematera

Gainera, legazpiar batzuen erruz (D-Pintxos) Euskal Herriak oihukatzen duen moduan, “Erabakitzen duen herria herriago bihurtzen da”. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK
Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo


DANI BLANCO

Doinua: ETaren su-etenetik.

Oporrak kanpingean

Gorputzak eta buruak bazuten haien desira ta oporrak egin ditugure beharren neurria. Nafarroko kanping baten hogei egunez guztira orain kanpotik jarrita oporraldia begira: eguneroko ohiturei so egitea aski da soziologo batek azkar aterako luke gida: kanpingean ere lehengo mundu denak batzen dira.

Partzelan gosalduek edo tabernan barra gainea, ingurutara maitu edo beti leku jakinean, telebista batekin joan edo e-booka soinean, haurrekin denbora pasa edo askatu ringean, lentejak edo kostillak parrilarik haundinean, arropak garbitu edo ez; eta nork? Azken finean... Lehengo mundu guztiak batzen dira kanpinean.

Bikoteak haserretu edo erraz jarri ados, norberaz hitz egin edo beste denei adarra joz, oporrak dastatzen egon edo bukatzeko gogoz, dagonaz gozatu edo amestu gehiago askoz... Hutsune handien ispilu egi txikien altaboz oporretan iraultzarik ez da gertatu oraingoz: kanpineko mundu denak berriz gizartera gatz. ■